

Koiuntura di-da batean

2017ko maiatza

Aurkibidea

1. Hazkundera
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Konfiantza
5. Ingurunea
6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,8 hazi zen 2017ko lehen hiruhilekoan.

Enplegua %2,0 handitu zen urte arteko tasan, 2007ko amaieratik lortu duen tasarik handiena dena.

2. Langabeziak berriro egin du behera EAEan.

Enplegu sorrerak ez ezik, parte hartzaileen jaitsierak ere azaltzen du bilakaera hori.

3. Energiaren merkatzeak inflazioa moteldu du.

Indize orokorra %2,3an kokatu zen eta azpiko inflazioa, berriz, %0,9an.

4. Enpresen konfiantza areagotu da 2017ko bigarren hiruhilekoan.

Hasi berri den hiruhilekoaz dituzten igurikimenak positiboak dira.

5. Egonkortasuna da nagusi aurtengo lehen hiruhilekoan.

Aldaketa gutxi herrialde nagusietako hazkunde erritmoetan.

6. NDFk munduko hazkunde esanguratsua aurreikusi du.

Zertxobait hobetu du ekonomia garatuentzat espero duen hazkundera.

EUSKO JAURLARITZA

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO BPG-AREN AURRERAPENA

EAEko ekonomia %2,8 hazi zen 2017ko lehen hiruhilekoan

BPGaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek argitaratu duen hiruhilekoko kontuen aurrerapenak adierazten du EAEko ekonomia %2,8 hazi zela 2017ko lehen hiruhilekoan. Tasa hori 2016ko azken laurdenekoa baino hamarren bakar bat txikiagoa da. Beraz, pasa den urte osoan hauteman zen moteltze arinak jarraipena izan du aurtien ere, baina sendotasuneko maila batean. Izan ere, datu hori Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenaren (%2,7) zertxobait gaineratik kokatu da eta EAEko ekonomiak bizi duen bizitasuna baieztatzen du. Hiruhileko arteko terminoetan, lehen hiruhilekoak (%0,7) hamarren batean hobetu zuen aurreko bi epealdietako emaitza, nahiko egonkorra den ibilbide batean.


BPGaren bilakaera

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa



Enpleguaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasak



Sektoreen ikuspegi batetik, jardueraren gehikuntza zerbitzuen bultzadak ekarri zuen, baina industriak ere aldeko joera erakutsi zuen. Orobat, eraikuntzak 2016an zehar bizi zuen susperraldia finkatu zuen. EAEko barne produktu gordinaren bizitasuna lan merkatura hedatu zen eta enplegu sorrera %2,0 handitu zen. Tasa hori 2007ko amaieratik jaso den handiena da. Beraz, azken hamabi hilekoen epean lanaldi osoko ia 17.700 lanpostu garbi sortu dira. Enpleguaren hiruhileko arteko tasak (%0,4) baikorrak izateko aukera ematen du eta datozen urte arteko tasak lehen hiruhilekoko %2,0 horretatik ez direla asko aldentuko pentsarazten du.

Enpleguaren bilakaera



Hiruhilabete arteko aldakuntza tasak





Iturria: Eustat.

LAN MERKATUA


Langabeziak berriro egin du behera EAEn




Hala Eustatek argitaratzen duen BJA inkestak nola INEk egiten duen BAI estatistikak urte hasiera ona iradokitzen dute langabeziaren bilakaerari dagokionez, egoera horretan zeuden lagunen kopurua oso nabarmen jaitsi zelako. Bi kasuetan eman den zenbaki absolutua oso antzekoa izan da. Hain zuzen ere, BJAREN datuen arabera, 117.000 pertsona zeuden lanik gabe eta BAI inkestaren kasuan zenbaki hori zertxobait gainditu zen eta 120.400etara iritsi. Langabeen beherakadari esker, Eustatek kalkulatzeko duen langabezia tasa puntu oso bat eta bi hamarren gutxitu zen aurreko hiruhilekoaren aldean, %12,6tik %11,4ra igarota. Beste aldetik, BAIk ere aurrekoa baino langabezia tasa apalagoa aurkeztu zuen, beraren erregistroa %11,9an utziz. EAEko langabezia tasa, inkesta horren arabera, autonomia erkidego guztietako bigarren txikiena da, Nafarroak (%10,3) jaso duenaren ondoren.



Aktiboak. BJA
Pertsonak




Aktiboak. BAI
Pertsonak




Neurri handi batean, langabeziaren jaitsiera sortutako enpleguaren ondorioa izan zen, baina biztanleria aktiboaren bilakaerak ere eragina izan zuen. Izan ere, bi estatistikek adierazten dute lan egin nahi zuten pertsonen kopurua gutxitu zela. Nahiz eta 16 urtetik gorako biztanleria, hori baita lanpostu bat betetzeko adina duena, nahiko egonkor mantendu, aktiboen kopurua txikiagoa izan zen, neurri handian biztanleriaren zahartzeak kaltetuta.

Horiek horrela, lanpostu bat betetzeko prest dauden pertsonen kopurua jaitsi denez, partaidetza tasa, 16 urtetik gorakoekin neurtuta, beheranzko joerari eutsi zion. Hain zuzen ere, BJAREN kasuan tasa hori lau hamarrenetan jaitsi da aurreko datuaren aldean (%56,4tik %55,0ra) eta zortzi hamarren, berriz, BAIri dagokionez (%56,7tik %55,9ra).

Partaidetza tasa. BJA
Ehunekoa




Partaidetza tasa. BAI
Ehunekoa



INFLAZIOA

Energiaren merkatzeak inflazioa moteldu du

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




Argindarraren eta erregaien merkatzeak KPI indizearen tasa sei hamarrenetan beheratu zuen martxoan, %2,9tik %2,3ra igaroz. Horrek baieztatzen du energia produktuen gora-beherek prezioak baldintzatzen dituztela. Hain zuzen ere, azken urtebetean erregaiak %11,2 garestitu dira, aurreko datua baino bost puntu luze gutxiago, nahiz eta oraindik gehikuntza tasa handiak izaten dituzten.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2017ko martxo	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,3	0,0	2,3	2,3
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,7	0,9	0,9	0,7
- Elikagai landuak (%14,3)	1,1	0,9	-0,7	-0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,3	0,8	1,0	0,2
- Zerbitzuak (%43,1)	0,8	1,1	1,3	0,6
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,5	-4,2	9,3	1,6
- Landu gabeko janariak (%7,8)	1,9	2,6	5,9	0,4
- Energia (%10,4)	-8,4	-8,2	11,2	1,2

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Erregaien merkatze hori petrolio gordinaren prezioaren jaitsierak ekarri zuen, aurreko urtean garestitu zen bitartean. Lehengai horren salneurriak gaur eguneko urkilaren barruan (Brent motako upela 50aren eta 55 dolarren artean dago) jarraitzen badu, inflazioa motelduko da datozen hilekoetan eta azpiko inflazioaren mailara hurbilduko da, une hauetan %0,9an dagoena. Pentsatzekoa zenez, petrolioaren bilakaerak eragin gehien dituen taldeak izan ziren KPI orokorraren jaitsieran parte hartze handiena izan zutenak. Izan ere, garraioak %6,4ko tasa jaso zuen martxoan, otsaileko datua baino bi puntu gutxiago, gasolinaren jaitsiera-rengatik, 2016ko martxoan garestitu zen bitartean. Orobat, etxebizitzaren taldeak %4,0ko gehikuntza eskuratu zuen, aurrekoa baino puntu bat eta erdi gutxiago, argindarraren merkatzearengatik. Bi horiei gehitu behar zaie aisialdia eta kultura, %1,7tik %0,7ra gutxitu zuelako bere tasa, aurreko igoen ondoren turismo paketeen salneurria bere horretan geratu zelako.

KPIaren talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak. 2017ko martxoak


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,3	2,3	1,5
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,4	1,4	1,7
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,7	1,7	2,0
Jantziak eta oinetakoak	0,8	0,8	0,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	4,0	4,3	1,9
Altzariak, etxeko tresneria eta mantenimendua	0,2	-0,4	0,0
Medikuntza	1,5	0,9	1,0
Garraioa	6,4	6,5	4,5
Komunikazioak	1,7	1,6	-1,2
Aisia eta kultura	0,7	-0,3	-0,3
Hezkuntza	1,6	1,0	0,6
Jatetxeak eta hotelak	1,2	1,2	1,6
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,4	1,1	0,8

Iturria: INE eta Eurostat.

ENPRESARIEN KONFIANTZA


Enpresen konfiantza areagotu da 2017ko bigarren hiruhilekoan

Enpresarien konfiantza indize harmonizatua. Euskadi




EAEko enpresarien konfiantza indize harmonizatuak ia hiru puntuko igoera izan du 2017ko bigarren hiruhilekoan lehenengo hiruhilekoko datuarekin alderatuta. Izan ere, indizea 130,9tik 133,7ra igo da. Amaitu berri den hiruhilekoaz (egoera) eskaini dituzten iritziei dagokienez, enpresa establezimenduen kudeatzaileetatik %21,3k iritzi baikorra eman du beraren negozioaren bilakaeraz aurreko hiruhilekoan. Aitzitik, %18,4k iritzi ezkorra eman zuen. Datu horiek adierazten dute egoeraren balantzea 2,9 puntutan kokatu dela. Hasi berria den hiruhilekoaz dituzten igurikimenen atalean, iritzi baikorra dute %22,4k eta ezkorra, berriz, %14,4. Igurikimenen balantzea 8,0 puntukoa da.

Amaitu berri den hiruhilekoaz duten iritzia




Hasiko den hiruhilekoaz duten iritzia




EUROPAKO HAZKUNDEA

Egonkortasuna da nagusi aurtengo lehen hiruhilekoan

Txinako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Esportazio eta inportazioen bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Txinako Estatistika Erakundea eta Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

Txinako ekonomia %6,9 hazi zen 2017ko lehen hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago eta 2016ko batez bestekoa baino bi gehiago. Neurri handi batean, hazkundearen oinarrian gobernua-
ren pizgarri neurri garrantzitsuak daude. Kreditu merkeak eta beherapen fiskalek kontsumo eta inbertsio pri-
batua areagotu zuten, %7,7 hazi baitzen. Halaber, inbertsio publikoa %13,6 handitu zen. Aurreko guztiari ge-
hitu behar zaio esportazioen susperraldia, %24,1 areagotu zirelako eta aurreko bi urteetan jaso zituzten eten-
gabeko jaitsierak atzean utzi zituztelako. Hego-Ekialdeko Asiako Tratatuaren Erakundearekin (ASEAN) egiten
dituzten salerosketen bilakaera onak eta Zetaren Bidea osatzen duten herrialde batzuekin duten merkataritzak
–Kazakhstanen %69,3 gehiago saldu zuten- azaltzen dute salmenten gorakada garrantzitsu hori.

AEBetako taula makroekonomikoa


	2016	2016 I	2016 II	2016 III	2016 IV	2017 I
BPG	1,6	1,6	1,3	1,7	2,0	1,9
Kontsumo pribatua	2,7	2,4	2,7	2,8	3,1	2,8
Inbertsio pribatu gordina	-1,6	-0,7	-2,9	-2,7	0,1	2,0
Kontsumo eta inbertsio publikoak	0,8	1,9	0,7	0,4	0,2	-0,6
Esportazioak	0,4	-0,9	-1,1	2,0	1,5	3,1
Inportazioak	1,2	1,0	0,3	0,6	2,6	3,8

Iturria: BEA.

AEBetan, lan merkatuaren egoera osasuntsuak kontsumo pribatua bultzatzen jarraitu zuen, bertako langabe-
zia tasa %4,5era jaitsi baitzen zen martxoan, azken hamar urteko tasarik apalena delarik. Halaber, inbertsio
pribatua sendo hazi zen, lehenengo aldiz bi urtean, osagai guztiek gehikuntza positiboak izan zituztelako. Hala
ere, kontsumo eta inbertsio publikoaren murrizketak neurri batean konpentsatu zuen hazkunde hori, baita
kanpo arloak ere, jarduera ekonomikoari hamarren bat kendu ziolako. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia
estatubatuarra %1,9 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago.

Europar Batasuneko BPGa


Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eurostat .

Euroguneko BPGa


Urte arteko aldakuntza tasa



Eurostatek ere Europar Batasuneko eta Euroguneko hazkundeak argitaratu ditu aurtengo lehen hiru hilekoe-tarako. Lehen zenbatespen horren arabera, egonkortasuna da nagusi kontinente zaharrean, zeren eta bertako BPG %1,9 hazi baitzen Europar Batasunean, 2016ko bigarren seihilekoan beste. Gaur arte argitaratu diren datu apurrek seinaltzen dute hazkundea Erresuma Batuen bultzadan oinarritu zela, %2,1 hazi baitzen, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago, eta baita Espainiaren egonkortasunean ere. Bi herrialde horiek Frantziaren gehikuntza txikiagoa (2016ko amaierako %1,2tik %0,8ra igaro zen) konpentsatu zuten. Eurogunea, berriz, %1,7 hazi zen urte arteko tasan. Hiruhileko arteko tasan, hazkundeak, hurrenez hurren, %0,5 eta %0,4 izan ziren.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE .


INEk argitaratu duen lehen zenbatespenaren arabera, espainiar ekonomia %3,0 hazi zen 2017ko lehen hiruhilekoan. Datu horrek 2016ko azken hiruhilekoan jasotakoa berdindu du eta 2014ko hastapenetan hasi zen goranzko aldiari jarraipena ematen dio, nahiz eta hazkunde erritmoa zertxobait moteldu den. Hiruhileko arteko tasatan, ekonomia jarduera %0,8 areagotu zen, aurreko bi hiruhilekoetan baino hamarren bat gehiago.

NDF-REN AURREIKUSPENAK

NDFk munduko hazkunde esanguratsua aurreikusi du

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



NDFk apirileko txostenean kalkulatu du munduko BPG %3,5 haziko dela 2017an eta %3,6ra igoko dela 2018an. Aurreikuspen horiek goranzko zuzenketa txiki bat egiten diote urtarrean aurkeztu ziren zenbatespenei. Gaur eguneko aurreikuspenek, alde batetik, ekonomia aurreratuaren bultzada sendoagoa iragaritzen dute eta, beste aldetik, azalera-tzen ari diren eta garapen bidean dauden hainbat ekonomien ahultzea aurreratzen dute.


NDFren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2016	2017	2018	2017	2018
Munduko ekonomia	3,1	3,5	3,6	0,1	0,0
Ekonomia aurreratuak	1,7	2,0	2,0	0,1	0,0
AEB	1,6	2,3	2,5	0,0	0,0
Eurogunea	1,7	1,7	1,6	0,1	0,0
Alemania	1,8	1,6	1,5	0,1	0,0
Frantzia	1,2	1,4	1,6	0,1	0,0
Italia	0,9	0,8	0,8	0,1	0,0
Espainia	3,2	2,6	2,1	0,3	0,0
Erresuma Batua	1,8	2,0	1,5	0,5	0,1
Japonia	1,0	1,2	0,6	0,4	0,1
Garatzen ari diren herrialdeak	4,1	4,5	4,8	0,0	0,0
Txina	6,7	6,6	6,2	0,1	0,2
India	6,8	7,2	7,7	0,0	0,0
Errusia	-0,2	1,4	1,4	0,3	0,2
Brasil	-3,6	0,2	1,7	0,0	0,2

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza.


Ekonomia aurreratuen BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Garapen bidean dauden ekonomien BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Ekonomia aurreratuen artean, AEBetako hazkunde aurreikuspenak gorantz berrikusi dira, espero den zerga politika malguagoa izango delako eta ekonomia eragileen konfiantza handituko delako. Europan eta Japonian ere gorantz zuzendu da, munduko manufakturen zikloa eta nazioarteko merkataritzarena suspertuko direlako.

Azaleratzen eta garatzen ari diren merkatuetako beheranzko zuzenketa batez ere Amerika Latinoaren eta Ekialde Hurbilaren zenbatespenen narriaduraren ondorioa da. Merkataritza salerosketen beherakada, petrolioaren ekoizpenaren murrizketa eta faktore idiosinkrasikoak dira aurreikuspenen okertzearen atzean daudenak.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016				2017
			I	II	III	IV	I
BPG	2,9	3,1	3,3	3,2	3,0	2,9	2,8
Familien kontsumoa	3,1	3,1	3,3	3,4	3,1	2,9	—
Administrazioaren kontsumoa	1,8	2,2	2,4	2,7	0,8	3,0	—
Kapital eraketa gordina	2,8	3,3	3,4	3,7	3,1	3,2	—
Barne eskaria	2,8	3,0	3,1	3,3	2,7	3,0	—
Esportazioak	0,6	2,2	4,2	3,0	1,6	0,3	—
Inportazioak	0,6	2,2	3,9	3,2	1,3	0,4	—
Lehen arloa	13,4	1,6	11,6	2,8	-0,7	-7,3	—
Industria	3,9	3,3	4,8	2,4	2,9	3,0	—
Eraikuntza	0,5	1,6	-0,3	2,7	1,9	1,9	—
Zerbitzuak	2,9	3,2	3,0	3,4	3,1	3,1	—
Balio erantsi gordina	3,1	3,1	3,3	3,1	3,0	2,9	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,1	3,1	3,2	3,2	2,9	3,1	—

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2017ko martxoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017				2017	2018
	I	II	III	IV		
BPG	2,7	2,5	2,4	2,4	2,5	2,2
Barneko azken kontsumoa	2,4	2,2	2,1	2,1	2,2	2,0
Familien kontsumoa	2,7	2,4	2,3	2,3	2,4	2,1
Administrazioaren kontsumoa	1,2	1,1	1,1	1,3	1,2	1,7
Kapital eraketa gordina	3,1	2,9	3,1	3,4	3,1	3,3
Barne eskariaren ekarpena	2,6	2,4	2,4	2,5	2,5	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	0,1	0,1	0,0	-0,1	0,0	-0,2
Lehen arloa	-1,6	-8,2	-10,6	-7,0	-6,9	-5,7
Industria	2,1	2,7	2,4	2,7	2,5	2,7
Eraikuntza	1,5	1,3	1,5	1,7	1,5	1,3
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,7	2,6	2,7	2,4
Balio erantsi gordina	2,6	2,5	2,4	2,6	2,5	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,9	2,7	2,6	2,4	2,6	2,0
Enplegua	1,9	1,7	1,7	1,5	1,7	1,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
BBVA	2,8	2,9	Laboral kutxa	2,3	—
Confebask	2,5	—	Funcas	2,2	—
CEPREDE	2,3	2,6	Hispalink (BEGaren aldakuntza)	2,1	1,5

Iturria: CEPREDE (2017ko apirila), BBVA (2017ko otsaila), Confebask (2016ko abendua), Laboral Kutxa (2016ko abendua), Funcas (2016ko urria) eta Hispalink (2016ko abendua).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016				2017
			I	II	III	IV	I
BPG	3,2	3,2	3,4	3,4	3,2	3,0	3,0
Kontsumo pribatua	2,8	3,2	3,6	3,4	3,0	3,0	—
Kontsumo publikoa	2,0	0,8	1,7	0,7	0,8	0,0	—
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,0	3,1	4,3	3,4	2,6	2,2	—
- Aktibo finko materialak	6,5	3,1	4,4	3,4	2,7	2,2	—
- Eraikuntzan	4,9	1,9	2,3	1,8	1,6	1,9	—
- Ekipamendu ondasunetan	8,8	5,0	7,4	5,7	4,2	2,6	—
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,6	2,9	4,0	3,2	2,0	2,4	—
Nazio eskaria (ekarpena)	3,3	2,8	3,5	2,9	2,5	2,2	—
Esportazioak	4,9	4,4	3,8	6,5	2,9	4,4	—
Inportazioak	5,6	3,3	4,5	5,4	1,0	2,3	—

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
AFI	2,8	2,4	Intermoney	2,5	1,9
Axesor	2,7	2,3	Repsol	2,8	2,7
BBVA	2,7	2,7	Santander	2,8	2,7
Bankia	2,5	2,0	Solchaga Recio & asociados	2,8	2,3
CaixaBank	2,6	2,2	BATEZ BESTE	2,6	2,3
Cemex	2,7	2,3	Gobernua (2017-04)	2,7	—
CEEM-URJC	2,4	2,4	Espainiako Bankua (2017-04)	2,8	2,3
CEPREDE-UAM	2,7	2,4	Europar Batzordea (2017-02)	2,3	2,1
CEOE	2,5	2,3	NDF (2017-04)	2,6	2,1
FUNCAS	2,5	2,2	ELGE (2017-03)	2,5	2,2
ICAE-UCM	2,5	—	The Economist (2017-04)	2,6	2,2
IEE	2,5	2,2	Consensus Forecast (2017-04)	2,6	2,2

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtsa; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Hazkunde ekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016				2017
			I	II	III	IV	I
AEB	2,6	1,6	1,6	1,3	1,7	2,0	1,9
Txina	6,9	6,7	6,7	6,7	6,7	6,8	6,9
Japonia	0,6	1,0	0,4	0,9	1,1	1,6	—
Kanada	0,9	1,4	1,3	1,1	1,4	1,9	—
Europar Batasuna	2,2	1,9	1,8	1,8	1,9	1,9	1,9
Eurogunea	2,0	1,7	1,7	1,6	1,8	1,8	1,7
Alemania	1,7	1,9	1,8	1,8	1,7	1,8	—
Frantzia	1,3	1,2	1,2	1,1	0,9	1,2	0,8
Erresuma Batua	2,2	1,8	1,6	1,7	2,0	1,9	2,1
Italia	0,8	0,9	1,1	0,8	1,0	1,0	—
Herbehereak	2,0	2,1	1,2	1,9	2,5	2,9	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2017ko apirila

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
AEB	2,2	2,4	2,5	2,3	4,6	4,4
Japonia	1,3	1,0	0,7	1,0	2,9	2,8
Kanada	2,3	2,0	2,1	2,0	6,7	6,6
Europar Batasuna	1,7	1,6	1,8	1,7	—	—
Eurogunea	1,7	1,5	1,6	1,4	9,4	9,0
Alemania	1,5	1,6	1,8	1,7	5,8	5,7
Frantzia	1,3	1,4	1,3	1,4	9,5	9,2
Erresuma Batua	1,7	1,3	2,6	2,7	5,0	5,2
Italia	0,9	0,9	1,3	1,3	11,4	11,1
Herbehereak	2,1	1,7	1,5	1,5	—	—

Iturria: Consensus Forecast.